


AP-8 autobideko Zestoa-Zumaia lotunearen parean seinaleak eta portikoak berritzeko lanak esleitu dira

Bidegik 734.900 €+BEZ inbertituko ditu seinaleetika berrian, 4 hilabeteko gauzatze-epearekin.




Bidegiko Administrazio Kontseiluak, otsailaren 23an (ostirala) egindako bileran, Zestoa-Zumaia AP-8ko lotunearen parean orientaziorako kartelak, banderolak eta portikoak berritzeko proiektuaren esleipena onartu du. Hori gauzatzeko, foru-sozietateak 734.900 €+BEZa inbertituko du, eta gauzatzeko epea 4 hilabetekoa izango da.

Proiektuaren helburua egungo banderola eta seinaleztapen-kartelak kendu eta berriak jartzea da. Guztira 10 seinale berri jarriko dira. Lau autobidearen enborearen barruan eta bi Zestoa-Zumaia ordainlekuko sarbide-adarren lotunean. AP-8aren barruko seinale berriak honako hauek izango dira: irteerara heldu aurretik, 4km-ra alboko kartel bat jarriko da, 1km-ra beste kartel bat, 500m-ra banderola bat eta irteera parean bi panel dituen arkupe bat, bata 48. irteera adierazten duena (Zestoa-Azpeitia-Zumaia) eta bestea autobidearen jarraipena eta noranzkoa adierazten duena Bilborako edo Donostiarako noranzkoan. Horiek instalatzeko, zapata berriak egingo dira panelak ainguratzeko, dagozkien euste- eta babes-sistemekin.

Lanak egiten diren bitartean, autobideko langileen eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko, autobidearen eskuineko erreia itxita egongo da eragindako zatian, bai egungo kartelak kentzeko orduan, bai berriak jartzeko unean. Halaber, banderolak eta portikoak eutsiko dituzten egiturak altxatzeko unean autobidearen enborra gauez ixtea aurreikusten da dagokion norabidean. Itxiera hauek alde aurretik iragarriko dira.

Adjudicada la renovación de los carteles y pórticos de señalización a la altura del enlace de Zestoa-Zumaia de la AP-8

Bidegi invertirá 734.900 €+IVA en la nueva señalética con un plazo de ejecución de 4 meses.



El Consejo de Administración de Bidegi celebrado este viernes 23 de febrero, ha aprobado la adjudicación del proyecto para renovar los carteles, banderolas y pórticos de señalización de orientación a la altura del enlace de la AP-8 de Zestoa-Zumaia. En su ejecución la sociedad foral invertirá 734.900€+IVA y el plazo de ejecución será de 4 meses.

El proyecto tiene como objetivo sustituir las actuales banderolas y carteles de señalización por unas nuevas. En total se colocarán 10 nuevas señales. Cuatro en cada sentido dentro del tronco de la autopista y dos en el enlace de los ramales de acceso del peaje de Zestoa-Zumaia. La nueva señalética dentro la AP-8 estará conformada por un cartel lateral a 4km de la salida, otro a 1km, una banderola a 500metros y un pórtico en el punto de salida con dos paneles, uno indicando la salida 48 (Zestoa-Azpeitia-Zumaia) y otro señalando la continuación y el sentido de la autopista en dirección Bilbao o Donostia-San Sebastián. Para su instalación se ejecutarán nuevas zapatas para los anclajes de los paneles con sus correspondientes sistemas de contención y protección.

Mientras se desarrollen los trabajos y a fin de garantizar la seguridad de los operarios y de los usuarios de la autopista el carril derecho de la autopista permanecerá cerrado en el tramo que corresponda tanto a la hora de retirar los actuales carteles como en el momento de colocar los nuevos. También se prevé el cierre nocturno del tronco de la autopista en la dirección afectada en el momento de levantar las estructuras que sostendrán las banderolas y los pórticos. Los cierres se anunciarán con antelación.